

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HLEA

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

**1 "Hamaika barre egin dute ikasleek nire bizkar!"
Zein egoera adierazten du?**

- a) Txiste onak kontaktzen dizkiet.
- b) Auskalo zer daukadan bizkarrean!
- c) Itzuli orduko barrez hasten dira.
- d) Nire kontura egiten dute barre.

2 "Onez onean bidali nituen etxetik". Zein da baliokidea?

- a) Ordu onean bidali nituen etxetik.
- b) Ez nuen istilurik izan etxetik bidaltzeko.
- c) Ondo afalduta bidali nituen etxetik.
- d) Onik zeuden bidali nituenean.

3 Agortu dugu gai zerrenda eta,, bukatu egingo dugu bilera.

- a) besteak beste
- b) bestela
- c) besterik ezean
- d) batez beste

4 Hurrek baino gutxiago irakurtzen dugu helduok eta lasai gabiltza munduan.

- a) pixka bat
- b) oso
- c) moduz
- d) asko

5 Zakur handiek "zaunk-zaunk" egiten omen dute; txikiak,, "txaunk-txaunk".

- a) aldiz
- b) hala ere
- c) gutxienez
- d) baita ere

6 Zuk egindakoak eman zigun zer

- a) pentsatzekorik.
- b) pentsatzerik.
- c) pentsatua.
- d) pentsatzeko.

7 Zein dago GAIZKI?

- a) Goizero ekin behar dio lanari.
- b) Eguzkiak hartu dio umetxoari.
- c) Papertxoa erantsi zion bizkarrean.
- d) Bere esker ona erakutsi zien.

8 Orain gazte prestu horiek ikusten dituzuenean, zeuek hazia direla jabetu behar zenukete.

- a) ereindako
- b) hasitako
- c) eragindako
- d) eroandako

9 Kanpora irteteko, zer esango zenioke lankideari?

- a) Joaten gara, ezta?
- b) Goaz kanpora?
- c) Joaten gara, mesedez?
- d) Goazen behingoz!

10 Egun osoa lasterka, ez litzateke iritsiko.

- a) ibilita ere
- b) badabil ere
- c) ibiltzen ere
- d) bada ere

11 Bilborako autobusak lauretan, bostetan eta seietan izango dira ,

- a) hurrenez hurren
- b) batez beste
- c) dagokionez
- d) bakoitza

12 egiten banaute ere, ez da nire ahotik ezer aterako.

- a) Nereak
- b) Txiki-txiki
- c) Eginak
- d) Ziri

13 "Lanak amaitu ditut". Zein da jarraipen egokia?

- a) Nik ere bai egin ditut.
- b) Ere bai nik.
- c) Nik ere bai.
- d) Nik egin ditut ere bai.

14 "Ez egin hori, laztana!". Zein jarraipen dago GAIZKI?

- a) Zergatik ez?
- b) Zer ba ez?
- c) Zer dela-eta?
- d) Zer nahi duzu egitea, bada?

15 "Argia" aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, egin zaitetz

- a) hartzaile
- b) jasotzaile
- c) harpidedun
- d) gogaide

16 gerra dagoen leku batera joango.

- a) Zoratuta ere ez, ez nintzateke
- b) Zoratuta ez nintzateke
- c) Ezta zoratuta ez nintzateke
- d) Zoratuta ere ez nintzateke

17 "Inoiz hitz egingo ote dut gero ingelesez?" Zer adierazi nahi du?

- a) Gogo eza
- b) Zalantza
- c) Arreta
- d) Debekua

18 Bakarrik bizi nintzenean, zinemara

- a) joaten ote nintzen.
- b) joaten nintzen.
- c) joaten ari nintzen.
- d) joaten ari izaten nintzen.

19 Gerta liteke norbera barrez egotea eta aldamenekoa zeharo ernegatuta.

- a) oldartuta
- b) lehertzen
- c) zatituta
- d) egiten

20 Non dago "astindu" hitza GAIZKI erabilia?

- a) Astindu ederra hartu zuen.
- b) Muturrak astindu nizkion.
- c) Majo astindu zuen poltsa merkealdietan.
- d) Lehengoan asko astindu nintzen.

21 Uste dut behartsuenganako elkartasun handiagoa eska aberatsei.

- a) diezaiokeela
- b) daitezkeela
- c) dakiekeela
- d) dakizkiela

22 Zein EZ DA egunaren zatia?

- a) Egutera
- b) Arratsa
- c) Ilunabarra
- d) Egunsentia

23 Ogibide honek gorabehera asko ditu; lan bat bukatzean ez dakizu bestea noiz izango duzun.

- a) izan ere
- b) beraz
- c) hain zuzen
- d) horregatik

24 Golpeak bakarrik ez, ere tratu txarrak dira.

- a) ziraunak
- b) iruzkinak
- c) irainak
- d) iruzurrak

25 Edozein har zenezake informazio hori.

- a) web orritik
- b) web orrietatik
- c) web orritikan
- d) web orritatik

26 Aitak ikastera behartuko, Ikerrek biziki gorrotatuko

- a) balu / lioke
- b) balu / luke
- c) balio / luke
- d) baluke / lioke

27 "Zerraldo jausi zen gizona". Zer esan nahi du?

- a) Estropezu egin zuela.
- b) Ia-ia jausi zela.
- c) Zulo batean jausi zela.
- d) Hilda bezala jausi zela.

28 "Kontu horrek onura handiak ekarriko ditu". Zer adierazi nahi da?

- a) Konpongaitza dela.
- b) Luze iraungo duela.
- c) Ondorio onak izango dituela.
- d) Berandu bada ere konponduko dela.

29 "Emakumeen kontra inon direnak esan dituzte". Zer esan nahi du?

- a) Emakumeen kontra ez dutela inon ezer entzun.
- b) Nonbait entzun dutela zerbait emakumeen kontra.
- c) Egundokoak esan dituztela emakumeen kontra.
- d) Ez dutela gauza onik esan ez emakumeez eta ez ezertaz.

30 "Loteriarik erosten ez baduzu, nola aberastu nahi duzu?". Zein da baliokidea?

- a) Loteria erosi ez ezik, nola aberastu nahi duzu?
- b) Loteria erostekotan, nola aberastu nahi duzu?
- c) Loteria erosi ezean, nola aberastu nahi duzu?.
- d) Loteria erosiagatik, nola aberastu nahi duzu?

31 "Badakizu? Laster ditugu azterketak". Zein da erantzun DESBERDINA?

- a) Bai, jakitun nago!
- b) Ez da izango!
- c) Ez daukazu esan beharrik!
- d) Ez dut jakingo, bada!

32 "Hori luze biziko da." Zein da baliokidea?

- a) Urte asko hartuko ditu.
- b) Luzeegi egingo zaio bizitza.
- c) Bizitza luzatu nahi du.
- d) Luze iritzi dio bizitzari.

33 "Utikan!" Zertarako erabiltzen dugu?

- a) Agur egiteko.
- b) Uxatzeko.
- c) Mehatxu egiteko.
- d) Adore emateko.

34egunez gaez berdin gidatzen dut nik.

- a) Nola / nola
- b) Non / baita
- c) Non / non
- d) Nola / hala

35 Belarritako haiek, amak oparitu , konpontzera eraman ditut.

- a) zizkidala
- b) zizkidana
- c) zidala
- d) zizkidanak

36 Nola idazten da 146?

- a) Ehunda berrogeitasei.
- b) Ehun eta berrogeitasei.
- c) Ehun eta berrogeita sei.
- d) Ehunda berrogeita sei.

37 Zein dira baliokideak?

- a) samina / nahigabea
- b) atsekabea / atsedena
- c) igorri / igarri
- d) goiburu / goibel

38 "Mertxe, askotan agindu badiguzu ere, oraindik ez dugu jaso zure saria". Zer EZ DU egin Mertxek?

- a) Erabaki sendoa hartu.
- b) Amore eman.
- c) Arreta jarri.
- d) Hitza bete.

39 Zein da "ergela" hitzaren sinonimo?

- a) Argia
- b) Aztia
- c) Buruarina
- d) Zelataria

40 "Aukera-aukeran jarri zioten". Baliokidea bilatu.

- a) Oso erraz jarri zioten.
- b) Oso zail jarri zioten.
- c) Oso garesti jarri zioten.
- d) Tranpa jarri zioten.

41 Ura garestiago datorren urtean.

- a) % 5a
- b) % 5
- c) % 5ean
- d) % 5tik

42 "Gertatzen dena gertatzen dela, gure jarrera ez da batere aldatuko". Zein da baliokide?

- a) Ez da ezer gertatuko eta ez dira gauzak aldatuko.
- b) Bada aukerarik gure jarrera aldatzeko.
- c) Edozer gertatuta ere, guk geureari eutsiko diogu.
- d) Ez dute zer ikusirik gertaerek eta jarrerek.

43 zu, aukera horri uko egiteko moduan bazaude!

- a) Errukarria
- b) Dohakabea
- c) Zorionekoa
- d) Zorigaiztokoa

44 Osasuntsu zeundenean, denak zenituen deika. Gaixotu ostean, ordea, gehienak ziren

- a) oihuka
- b) kezkatuta
- c) iheska
- d) galdezka

45 Zer egin behar luke gezurtiak, egia aitortu ala gezurrari?

- a) muzin
- b) hozka
- c) gezur
- d) eutsi

46 "Sekulako partida jokatu dugu futboleant eta orain.... nago." Zein dago GAIZKI?

- a) porru eginda
- b) zintz eginda
- c) neka-neka
- d) leher eginda

47 "Amak agindutakoa di-da egin zuen Ainhoak". Zer esan nahi du?

- a) Arin-arin egin zuela.
- b) Gaizki egin zuela.
- c) Astiro egin zuela.
- d) Gogo txarrez egin zuela.

48 "Hori da gizon zitala!" Nolako gizona da?

- a) azkarra
- b) petrala
- c) iharra
- d) berritsua

49 Batean gauza bat, hurrengoan beste bat. Mesedez, gehiago

- a) ez diguten nahastuko!
- b) ez diezagutela nahas!
- c) ez gaituzten nahas!
- d) ez gaitzatela nahas!

50 Zein da zuzena?

- a) Baloia bana eman zizkioten umeei.
- b) Zein auzokoa zara zu?
- c) Nik babak baino nahiago dut dilistak.
- d) Lasai, neuk deituko dizut.

51 Zein EZ da hegaztia?

- a) Erbia
- b) Eperra
- c) Arranoa
- d) Antzara

52 Ditugun urri eta zaharrekin ezin diegu erantzun eskatzen zaizkigun zerbitzuei.

- a) baliabide
- b) pentsaera
- c) langileria
- d) ogibide

53 "Istripuaren ondorioz erredura ugari ditu eta"

- a) haragi bizian dago.
- b) larru-bizi dago.
- c) larrugorri dago.
- d) azal hutsean dago.

54 "Ba al dakizue eskaneatzen?"

Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Bai, jakin beharrean!
- b) Bai, horixe badakigu!
- c) Bai, hori ere jakin beharra!
- d) Bai, beharko jakin!

55 Datorren ostegunean, , izango da batzarra.

- a) martxoko 6
- b) martxoak 6
- c) martxoa 6
- d) martxoak 6an

56 Norbaitekin "buruz buru" egiten denean, zer egiten da?

- a) Topo egin.
- b) Hausnartu.
- c) Zerbait gogoratu.
- d) Bukatu.

57 Zuk planteiatu zenuenari ondo Pellok.

- a) deritzaio
- b) deritzaie
- c) deritzo
- d) deritze

58 Nahi baduzu, zure autoa erabili eta nahi baduzu, nirea. Hori da.

- a) gutxienekoa
- b) gutxikoa
- c) gutxiestekoa
- d) gutxienez

59 Egon zaitetz lasai,

- a) hori berdin dio eta.
- b) horrek berdin zaio eta.
- c) hori ez dio ardura eta.
- d) horrek berdin dio eta.

60 "Ez du, bada, besoa apurtu!" Zer gertatu da?

- a) Gutxigatik ez du besoa hautsi.
- b) Ez du besorik hautsi.
- c) Besoa hautsi nahi izan du.
- d) Besoa hautsi du.

61 "Zer pentsatu, huraxe idazten nuen ahal bezain azkar". Zer adierazten du?

- a) Izan nuela zer pentsatu.
- b) Ideiak etorri ahala jasotzen nituela.
- c) Pentsatu gabe idaztea nuela gogoko.
- d) Trebea nintzela idazten.

62 Erantzi kirol-prakak eta dotore jantzi!

- a) itzazu / ezazu
- b) zaitetz / zaitetz
- c) itzazu /zaitetz
- d) ezazu /ezazu

63 Zein dago GAIZKI idatzita?

- a) Saihetsa
- b) Zamina
- c) Zaina
- d) Sabela

64 Horiek elkarri mokoka dabilta beti; ez diote errespeturik

- a) batek besteri
- b) batari zein besteari
- c) batak besteari
- d) ez bati ez besteari

65 Zein dago ondo idatzita?

- a) erazoa
- b) erozoa
- c) iruzurra
- d) arbazoa

66 Zabaltzen jarraitu nahi badugu, gure lan-taldea sendotu eta egin behar dugu.

- a) ahuldu
- b) trinkotu
- c) indargetu
- d) urritu

67 Erabil euskara beti erabili izan den gisa!

- a) bitez
- b) dakion
- c) bedi
- d) bekio

**68 "Horrek ni beldurtu?"
Zein da jarraipen zuzena?**

- a) Etorriko omen da!
- b) Etorriko al da!
- c) Etorzea dauka!
- d) Etorzea badauka!

69 "Gure umea oso otzana da". Zer esan nahi du?

- a) Harroa dela.
- b) Esanekoa dela.
- c) Alferra dela.
- d) Langilea dela.

70 "Liburu horrek ez dauka ... orrialde interesgarririk!"

- a) batere
- b) bat ere ez
- c) baten bat
- d) bat edo beste

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK**HLEA**

1	D	11	A	21	C	31	B	41	B	51	A	61	B
2	B	12	B	22	A	32	A	42	C	52	A	62	C
3	C	13	C	23	A	33	B	43	C	53	A	63	B
4	D	14	B	24	C	34	D	44	C	54	D	64	C
5	A	15	C	25	D	35	D	45	D	55	B	65	C
6	C	16	D	26	B	36	C	46	B	56	A	66	B
7	B	17	B	27	D	37	A	47	A	57	C	67	C
8	A	18	B	28	C	38	D	48	B	58	A	68	C
9	D	19	B	29	C	39	C	49	D	59	D	69	B
10	A	20	D	30	C	40	A	50	D	60	D	70	A